

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 374/2018 Erabakia, uztailaren 10ekoa. Gazteriaren Foru Erakundearen enplegu publikoko eskaintza onestea**

Euskal Autonomia Erkidegoko Funtzio Publikoari buruzko Legeak, azaroaren 7koa, 21.1 artikuluan (betiere, lege honek emandako idazkeraren arabera: 16/1997, azaroaren 7koa) xedatutakoaren arioren, "aurrekontu izendapena duten giza baliabideen beharrianak, administrazio publiko bakoitzak dituen langileekin bete ezin badira, enplegu publikoaren eskaintzan eskainiko dira betetzeko".

Horrela, Gazteriaren Foru Erakundeak, Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoak, aldi baterako eta bitarteko enplegua finkatzeko prozesua garatu nahi du, dauden lanpostuak gehitu gabe. Horretarako, aurrekontu zuzkidura dutenak eta lanpostuen zerrendan daudenak aterako ditu eskaintzara.

Uztailaren 3ko 6/2018 Legeak, Estatuaren 2018ko aurrekontu orokorrenak, mugak eta bete-kizunak ezartzen ditu langile berriak sartzeko 2018ko ekitaldirako, muga horien barruan onartuta, betiere errespetatuz gastuen aurrekontuen I. kapituluko aurrekontu baliabideak, hurrengo sektore eta administrazioetan enplegu publikoaren eskaintza deitzea. Era berean, lege horren 19.1.2 artikulua xedatzen du berriztatze tasa gehienez ere ehuneko 108 izango dela, baliabideak gehitzeko beharra duten arlo edo sektoreetarako izango da, betiere aurrekontu egonkortasunaren eta finantza jasangarritasunaren eremuaren barruan.

Hala, bada, ez dira zenbatuko giza baliabideak berriztatze tasaren ondoriozko gehie-nezko plaza kopuruaren barruan baleude bezala deialdian barne sustapeneko prozesuen bidez betetzeko eskaintzen diren plazak, ez eta epailearen epai bidez mugagabeko langile ez-finkotzat deklaratuak izan diren langileenak.

Beste alde batetik, artikulua horren 9. apartatuak berak dio ezen, 3/2017 Legearen 19. Bat.6 artikuluan ezarritakoez gain (3/2017 Legea, ekainaren 27koa, Estatuaren 2017rako aurrekontu orokorre buruzkoa), baimena ematen dela aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarri baterako, eta horien artean izango direla egiturazko plazak izanik eta aurrekontuz hornituak egonik aldi batez okupatuak izan direnak 2017ko abenduaren 31 baino lehenagoko hiru urteetan etenik gabe, sektore eta kolektibo hauetan: administrazio zerbitzuetako langileak eta zerbitzu orokorretakoak, ikerketakoak, osasun publikokoak eta medikuntzako ikuskatzailetzakoak, bai eta beste zerbitzu publiko batzuetakoak ere.

Halaber, kontuan hartu behar dira, langileak sartzeko direnerako estatuaren 2005etik 2017ra arteko aurrekontu orokorren legeetan jasoriko gaikuntzak; era berean, kontuan hartu behar da gaikuntza hori ez dela posible 2014. eta 2015. urteetako estatuaren aurrekontuen legeei dago-kienez, urte horietako ekitaldi bakoitzean onartu behar baitzen enplegu eskaintza.

Hori guztia kontuan izanik, Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendaritza-kudeatzailetzak lan eskaintzarako proposamen bat egin du lanpostu zerrendaren arabera. Proposamen horretan sartuko dira aurrekontuan zuzkidura duten plaza hutsak, baldin eta ezin atzeratuzkoa jotzen bada haiek betetzea zerbitzu publikoak ondo ibiltzeko, lan eskaintzan sartuz betetzekoak diren plazak. Erabaki hori erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluak aztertu zuen 2018ko uztailaren XX(e) an egindako bilkuran eta erabaki zuen Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari aurkeztea.

Kontuhartzailletza Zerbitzuari aginduzko txostena eskatu zaio.

Horregatik, Gazteriaren Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluak eta Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Gazteriaren Foru Erakundearen zerbitzura dauden langileen plazen 2018rako enplegu publikoaren eskaintza onartzea. Plazak erabaki honen eranskinean jasota daude.

Bigarrena. Aipatutako eranskinean derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten plazak finkatzen dira, eta nahitaezkoa izango da hura betetzea plaza eskuratzeko.

Hirugarrena. Sartzeko sistema orokorra oposizio-lehiaketa izango da.

Laugarrena. Eskainitako plazak eskuratzeko prozedura eta betekizunak kasuan kasuko deialdietan finkatuko dira, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak onartuko duen oinarrien arabera.

Bostgarrena. Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua onartzen duenak, 70.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, hautaketa prozesuak gehienez ere hiru urteko epearen barruan deitu beharko dira, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Seigarrena. Argitaratzea erabaki hau eta bere eranskina ALHAOn, eta honen laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 10a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZALEZ VICENTE**

*Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua*

**IGONE MARTINEZ DE LUNA UNANUE**

## ERANSKINA / ANEXO

ARLOA ÁREA	LANPOSTUA PUESTO	L.K. C.P.	Lanpostuak Plazas	K.E. R.C.	D.E. R.D.	T.T. G.T.	H.E. P.L.	D.D. F.P.	
<b>1</b>  <b>ZERBITZU OROKORRAK</b>  SERVICIOS GENERALES	Zerbitzu Orokorretako Teknikaria <i>Técnico/a de Servicios Generales</i>	180164	1	L	N	A1	3	2021/12/31	
	Gazteria Teknikaria <i>Técnico/a de Juventud</i>	180164	1	L	N	A2	3	2012/12/31	
	Zerbitzu Orokorretako Administraria <i>Administrativo/a de Servicios Generales</i>	030106 030207	2	L	N	C1	2	1994/12/31	
	Gazteriako Teknikari Laguntzailea <i>Auxiliar de Juventud</i>	050108	1	L	N	C2	2	2012/12/31	
<b>2</b>  <b>EGOITZAK RESIDENCIAS</b>  <b>UNITATEA UNIDAD: 30.4000</b>  <b>ZUHATZAKO ATERPETXEA</b>  ALBERGUE DE ZUAZA	Kirol Jardueretan Espezialista <i>Especialista de Actividades Deportivas</i>	180167	1	D	N	C1	2	2017/12/31	
	Uretako Kirol Jardueretan Espezialista <i>Especialista de Actividades Deportivas Acuáticas</i>	160246 160448 160549 160852 160953 161256	6	D	N	C1	2	1994/12/31 1994/12/31 2012/12/31 2007/12/31 2007/12/31 2014/01/01	
	Muntai eta Zerbitzueta Espezialista / <i>Espezialista de Montaje y Servicios</i>	170259 170360 170461	3	D	N	C2	2	2021/12/31 1994/12/31 2021/12/31	
	Muntai eta Zerbitzueta Espezialista / <i>Espezialista de Montaje y Servicios</i>	170562	1	D	N	C2	2	2021/12/31	
	Txaluparia / <i>Barquero/a</i>	180167	1	D	N	C1	2	2021/12/31	
	<b>30.2000 ESPEJOKO ATERPETXEA</b> ALBERGUE DE ESPEJO	Espejo Aterpetxeko Zuzendaria / <i>Director/a de Albergue de Espejo</i>	060224	1	L	N	A2	3	2007/12/31
	<b>30.1000 BARRIAKO ATERPETXEA</b> ALBERGUE DE BARRÍA	Sukaldaria/ <i>Cocinero/a</i>	080112	1	L	N	C1	1	2021/12/31
	Garbiketako eta Zerbitzueta Espezialista <i>Especialista de Limpieza y Servicios</i>	111020	1	D	N	C2	1	2021/12/31	

Abreviaturas:

L.K./C.P.: Lanpostuaren Kodea / Código de Plaza

K.E./R.C.: Kontratazio Erregimena / Régimen de Contratación:

- L: Lan-kontratu Finkoa / Laboral Fijo Continuo

- D: Aldizkako lan-kontratu finkoa / Laboral fijo-discontinuo

D.E./R.D.: Dedicazio Erregimena / Régimen de Dedicación

- E: Erabatekoa / Exclusiva

- EB/N: Ohikoa / Normal

T.T./G.T.: Titulazio Taldea / Grupo de Titulación.  
H.E./P.L.: Hizkuntza Eskakizuna / Perfil lingüístico.  
D.D./F.P.: Derrigortasun Data / Fecha de Preceptividad